

MUSIKA. Jaialdiaren lehen ekitaldian hartu zuen parte kantariak, Beasainen orduan ere, Josu Erguinek deituta

Duela 25 urte bezala, Kilometroak-en alde kantatuko du gaur Mikel Laboak

Iazko ekainaz geroztiko lehendabiziko emanaldia egingo du, Beasaingo Antzizar kiroldegian

Juan Luis Zabala | DONOSTIA


Duela 25 urte, 1976an, Kilometroak jaialdia lehenbizikoz egin zelarik, Beasainen, Mikel Laboak kantaldi bat eskaini zuen, igandez, zirkuituan bertan. Aurten, gaur zehazki, Kilometroak ekimenarekin kolaboratuko du berriro Laboak, orduan bezala, kantaldi bat eskainiz. Ez, ordea, zirkuituan, Antzizar kiroldegian baizik. 22:30ean hasiko da kontzertua, eta bere ondoan honako musikari hauek izango ditu ondoan kantariak: Iñaki Salvador pianista, Josetxo Silguero saxofoi jolea, Jexux Artze eta Pello de la Cruz txalapartariak eta Javier Area perkusionista. Laboaren aurretik Ur da Lur taldea ariko da, Tere Irastortzaren hitzei Kilometroak iragartzen duen abestia sortu duena.

Bernardo Atxagaren 37 galdera mugaz bestaldean *dudan kontaktu bakarrari* poeman oinarriturik egindako abesti ezagunaren beste bertsio bat aurkezteko asmoa du Laboak gaurko kantaldian. «Aspaldian Beasain eta inguru horietan izan ez naizenez, azkeneko boladan ematen ari naizen kontzertua egingo dut», aurreratu du Laboak. «Denetik izango da: bai kantu tradizionalak, eta bai gaurko olerkarien lan musikatuak: Atxaga, Sarrionandia, Lete, Brecht... Lekeitioak ere izango dira, *Kiromandzixa*... Izaskun Ellakuriagak errezitatuko du Sarriren poema hori».


Duela 25 urteko kantaldiko oroitzapenak

Duela 25 urteko Kilometroak jaialdian egindako kantaldiaz oroitzapen onak ditu Laboak. «Josu Erguinek kantatzera joateko deitu zidanean, esplikatu zidan zer zen jaialdi hura», oroitu du Laboak, «EEBBetan garuneko paralitikoaren alde egiten zen ekimen batetik hartu zuen ideia, ikastolen alde egiteko. Nahiz eta berak esplikatu, guk ez genuen oso ondo ulertu zer izango zen hura, baina kantatuko nuela esan nion. Antolatzen zen lehen aldia zen eta ez zen jende asko joan, jendeak ez zekielako zer zen hura, baina giroa ona izan zen, oso egun ona igarotzen genuen. Sorpresa bat izan zen denontzat. Hurrengo urteetan jende asko joan zen, eta gaur egun ere beti izaten da

Lehen ekitaldi hartan, zirkui-



EGUNKARIA
1976KO KONTZERTUA. Mikel Laboak Kilometroak jaialdiaren lehen ekitaldian kantari. Artean jendeak ez zekien jaialdia zer zen, baina giroa oso atsegina izan zen, Laboak oroitzen duenez.



JAVIER ECHEZARRETA / EFE
AURTEN HIRU EMANALDI. Gaurkoaz gain, beste bi emanaldi egingo ditu Laboak aurten: Bilbon urrian, Lezon abenduan.

tuko kilometroak egin ahala zigilua bota behar zela oroitzen du Laboak, eta azkenean «konplikatu» egiten zela guztia. «Gero kontu horiek asko erraztu dira», komentatu du.

Iazko ekainaz geroztik ez du

emanaldirik egin Mikel Laboak, baina urtea amaitu baino lehen beste bi kantaldi egingo ditu: Bilboko Euskalduna jauregian izango da bata, urriaren 30ean, Enrique Morenterekin; Lezoko kiroldegian bestea, abenduaren

MIKEL LABOA

Kantaria

«Josu Erguinek esplikatu zigun jaialdia zer zen, baina ez genion oso ondo ulertu. Oso gustura kantatu nuen, giro onean»

«Denetik emango dugu kontzertuan: kantu tradizionalak, gaurko olerkarien lan musikatuak, Lekeitioak...»

22an, Pasaiako ikastolaren 25. urteurrena dela eta. Mikel Laboak ez du kantaldi asko egiten, baina zenbait eskaerari ezin dio ezetz esan. «Pasaiakoa dut nik familia osoa, pasaiarrak gara, eta pentsatu nuen ezin niola ezetz esan Pasaiako ikastolaren aldeko kantaldiari».

Ez daki Laboak noiz izango den kalean bere hurrengo diskoa, baina 2002an kaleratu nahiko luke. «Kantu berriak izango dira, eta beste batzuk lehengoak, baina beste musikari batzuen emanak», aurreratu du, «nik *Tebas* deitzen dudana esaterako, *Langile baten galderak liburu baten aurrean*, Brechten poema batean oinarritua».

Gaur hasiko da Donostiako Elektronikaldia 2001 musika jaialdia

Erredakzioa | DONOSTIA

Gaurtik igandea arte musika elektronikoa nagusituko da Donostiaz. Elektronikaldia 2001 musika jaialdiaren aurteneko ekitaldiak mundu guztiko musikari eta disko jartzailak bilduko ditu asteburuan. Egiako Gazteszena aretoan izango dira gaueko emanaldiak, eguneko ordea, Kursaal jauregian bilduko dira protagonistak; musika saioez gain, azoka, mahai inguru, bideo emanaldi eta abarrak izango dira.

Musika elektronikoren forma ezberdinak izango dira asteburu honetan, Donostian: popa, hip hopa, jazz, erritmo afroak, technoa, soula edo esperimendazioa oinarri duten doinu elektronikoen gozatu ahal izango da. Musikariak eta DJak bai Euskal Herrikoak, nahiz Bartzelona, Madril, Paris, Londres, New York, Nottingham eta beste hainbat tokitakoak izango dira. Hauek dira asteburu honetan Donostian izango diren talde batzuk: Chico (DJ donostiarra), Les Gammas (Alemania), Sideral (Bartzelona), Deadbeats (Ingalaterra). Soinu joera berriei zuzenduriko jaialdi honetan, guztira 57 musikari ariko dira zuzenean.

Bideo-emanaldiak eta mahai inguruak

Elektronikan espezializaturiko hogeitxeko asteperoko azokan, bideo musikak eta *Step Across The Border* bezalako filmak eskainiko dira. Bi mahai inguru dauzaten antolatzaileak, bata, hedabideetan musikak duen tratamenduari buruz ariko dena eta bestea, merkataritza elektronikoren munduaren inguruko. Horretarako, mundu osoko kazetari espezializatuak etorriko dira.

Proiektu esperimentalek amaituko dute aurteneko jaialdia. Besteak beste, Janek Schaefer eta Burnet Friedman & Jaki Liebez, publikoak hainbeste laudatu dituenak izango dira bertan.